

Doinua: martxa baten lehen notak

Hilabete batzuk badira ia
Nahasmen hau hasi zela
Hezkuntza lege berria dela,
Aurreproiektua dela.

Berdin digu zein izen eman
Gauzak ez nahastu nolana!
Guk behintzat argi dugu eta
Mozzorrorik ez dugu nahi!

Publikoaren izenarekin
Saldu nahi dute dena
Baina gauza bat argi badago:
Publikoa kaltetzen dena.

Urteetako gure borrokak
Eman du fruitu oparo;
Zuen lege berri honekin
Ez gaude bat ere harro.

Entzun nahi ez bagaituzte ere
Jarraituko dugu esanez,
Publikoa ardatz ez izan arte,
Guk hezkuntza lege honi ez!